



**ARABAN KUDEAKETA AURRERATUKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO PROGRAMA**  
**INNOBIDEAK-KUDEABIDE PROGRAMA 2023**

<b>Eskatzeko epea (8. art.)</b>	<b>Aplikazio eremua eta proiektuak egiteko epea (5. art.)</b>
Eskaerak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 4an hasiko da eta 2023ko irailaren 29an bukatuko da, 14:00etan.	Proiektuak ALHn ezarri beharko dira. 2023an hasi beharko dira, laguntza eskaera aurkeztu ondoren, eta amaitu, aldiz, hasi eta hamabi hilabete naturaleko epean, eta, betiere, 2024ko urriaren 1a baino lehen.
<b>Xedea (1. art.)</b>	Kudeaketa hobetzeko proiektuak laguntzea, kudeaketa aurreratuaren ereduarekin bat datozenak eta Arabako enpresen lehiakortasuna hobetzen dutenak.
<b>Entitate onuradunak (3. art.)</b>	5 langile eta 50 langile baino gutxiago artean dituzten Arabako enpresak, baldin eta Euskalitek egindako hasierako kontrasteko txostena indarrean badaukate eta kudeaketa aurreratuako ekintza plan zehaztu bat aurkezten badute. Ekintza plan horretan kontrastean identifikaturiko hobekuntza arloetako kudeaketa finkatzeko proiekturen bat jaso beharko da.  Horrez gain, erakunde onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte: - Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban edukitzea edo lurraldean gutxienez ekoizpen edo zerbitzu zentro bat edukitzea. - Jarduera ekonomikoen zergaren epigrafe hauetakoren batean jarduera ekonomikoak egitea: Enpresa jarduerak: 1, 2, 3, 4, 504, 62,69, 7, 84 eta 9 taldeak. - Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
<b>Diruz lagundu daitezkeen jarduerak (4.1. art.)</b>	Diruz lagundu ahalko dira kudeaketa aurreratuako hasierako kontraste txostenarekin bat datozen eta erakunde eskatzailearen kudeaketa aurreratuako ekintza planean jasotzen diren finkatze proiektuak (2B proiektuak).
<b>Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak (4.2. art.)</b>	Diruz lagundu ahalko dira kanpoko enpresak edo profesional autonomoak kontratatze egindako gastuak, kudeaketa hobetzeko aurkeztutako proiektuaren aholkularitza jarduerak egiteko erabili badira.  Diruz lagundu ezin diren gastuak: - Balio erantsiaren gaineko zerga - Kanpoko enpresako langileen joan-etorrien gastuak - Materialak prestatzeko gastuak - Aretoen alokairua - Dietak eta antzekoak - Enpresa eskatzailearen barruko langile gastuak
<b>Laguntzen zenbatekoa (6. art.)</b>	Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa: 7.200,00 euro % 60ko dirulaguntza Gutxienezko dirulaguntza: 1.500,00 euro
<b>Araudia eta laguntzak emateko araubidea</b>	Otsailaren 23ko 6/2023 Foru Agindua. ALHAO 2023ko martxoaren 3a, ostirala • 26 zk. <a href="https://www.araba.eus/botha/Boletines/2023/026/2023_026_00596_E.pdf">https://www.araba.eus/botha/Boletines/2023/026/2023_026_00596_E.pdf</a>  Dirulaguntzak lehia askea bidez emango dira (9. art.).